

## **BEASAIN / Gazteak dira batik bat Wi-Fi bidez internet erabiltzen dutenak**

**Herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua zabaltzeko asmoz sistema berria jarri zen martxan herriko liburutegian**

Uxua Barandiaran

Wi-Fi sistemaren bidez internetera konektatzen diren herritarrak gazteak dira gehienak. Lanak edota ikerketak egiteko erabiltzen dute eta arratsaldetan etortzen dira batik bat, horixe adierazi du Mari Jose Sorazu Beasaingo iburutegiko arduradunak. Jende helduagoa ere joaten omen da baina gutxiereago.

Duela urtebete inguru jarri zen herriko iburutegian Wi-Fi sistema. Teknologia honi esker eskuko edota PDA ordenagailua duten erabiltzaileei sare gabeko internet konexioa eskaintzen zaie dohainik. Teknologia berri horretarako prestatu gabeko ordenagailuak dituztenei, txartel berezi batzuen bidez eskaintzen zaie konexioa berbera.

Zerbitzu horren erabilpena erraza dela adierazi dute Udaletik: Wi-Fi sistemaren bidez internet erabili nahi duenak erabiltzaile kodea eta pasahitza eskatu behar ditu iburutegian. Honela, erabilera bakarreko eta denbora mugatuko zerbitzuaz gozatzeko aukera izango du herritarrak. Denbora bukatzean berritzeko aukera egongo da.

Sistema honen abantailak begi bistakoak dira. Azken finean iburutegian zerbitzu bat gehiago eskaintzen da eta modu libre batean eta inolako kosterik gabe interneten nabigatzeko aukera dago.

### **Teknologia berrien bidean**

Internet bidez geroz eta zerbitzu gehiago jartzeko konpromisoa du Beasaingo Udalak eta asmo horretan ulertu behar da Wi-Fi sistema jarri izana.

Honetaz gain eta aurrekoa osatze aldera, [www.beasain.net](http://www.beasain.net) web orrialden ere geroz eta zerbitzu gehiago jartzen ari dira erabiltzaileentzat. Besteak beste, nortasun agiria berritu ahal izateko txandak aldez aurretik hartu daitezke online bidez. Gainera, errolda ziurtagiria ere eska daite udaletxera bertara joan beharrik gabe.

Teknologiaren aldeko apustua eginez, lanean jarraituko dute gerora ere. Momentu honetan ikertzen ari gara baina gerora sinadura digital baten bidez jendeak hainbat gestio etxetik egin ditzala lortu nahi dugu.

### **Zer da Wi-Fi sistema?**

Orain urte batzuk eman zen ezagutzera Wireless Fidelity edo Wi-Fi teknologia. Bluetooth teknologiaren antzekoa izanik, ordenagailuaren elementuak elkarren artean konektatzeko balio du kable beharrik gabe. Dena dela, Bluetooth-en teknologia baina hedadura zabalagoa dauka.